



2021/04/29KO UDALBATZAREN OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Eguna: 2021/04/29
Hasiera ordua: 19:00
Amaiera ordua: 19:20

Bertaratuak:

Lehendakaria:

Lierni Altuna Ugarte –alkatea- (EH BILDU)

Zinegotziak:

EH BILDU UDAL TALDEA:

Maria Cristina Etxenausia Irure

Iban Herrarte Arana

Oihana Ameskoa Perez

Santiago Balantzategi Beitia

Ana Maria Martiarena Arregi

Gorka Astondoa Altuna

EAJ/PNV UDAL TALDEA:

Juan Antonio Peña Orobengoa

Ez bertaratuak:

Pedro Elosegui González de Gamarra

Idazkaria:

Bittor Agirreurreta Murgia

Aramaion (Ibarran), Udaletxeko bilkura aretoan, goian aipatutako egun eta ordua denean, lehenengo deialdian goian aipatzen diren zinegotzi jaun andreak bildu dira Udal Plenoaren ohiko bilkura burutzeko objektuaz, Lierni Altuna Ugarte Alkate-Lehendakaria Lehendakari dela. Bilkura honetara Udalaren idazkari-kontuhartzaila, Bittor Agirreurreta Murgia, bertaratu da.

Lehendakariak, quoruma dagoela egiaztatuta, hasiera eman dio bilkurari eta aztergaien zerrendan jasotako gaiak jorratzeari ekin dio Udalbatzak:



AURKIBIDEA

| | |
|--|---|
| 1. ONARTZEA, BADAGOKIO, AURREKO BILKURETAKO AKTAK. | 3 |
| 2. DEKRETUEN BERRI EMATEA. | 3 |
| 3. ONARTZEA, IKUSIZ GOZATU ELKARTEAREKIN HITZARMENA LUZATZEA. | 3 |
| 4. ONARTZEA, BADAGOKIO, BESAIDKO LUR SAILAREN LAGAPENA. | 3 |
| 5. ADOSTASUNA AGERTZEA FORU GOBERNU KONTSEILUAREN ABENDUAREN 29KO 720/2020 AKORDIOAREKIN, ZEINAREN ARABERA ONARTZEN BAITA 2021EKO ABENDUAREN 31RA ARTE LUZATZEA ABENDUAREN 26KO 904/2016 AKORDIOA, GIZARTE ZERBITZUAK FORU ALDUNDIAK EMATEKO. | 4 |
| 6. GALDERAK ETA ESKAERAK. | 6 |



1. ONARTZEA, BADAGOKIO, AURREKO BILKURETAKO AKTAK.

Alkate-Lehendakariak 2021eko otsailaren 25eko ohiko bilkurako eta 2021eko martxoaren 30eko ezohiko bilkurako aktaren gainean inork oharririk ote duen galdetu du.

Inork akta horri buruz oharpenik ez duenez, lehendakariak akta onartzeko bozketa deitu du eta aho batez onartu da, 2568/1986 Errege Dekretuaren, azaroaren 28koaren, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenaren 91. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2. DEKRETUEN BERRI EMATEA.

Udalbatza, besterik gabe, azken ohiko bilkuratik egin diren dekretuen jakitun gelditu da (51/21etik 98/21era).

3. ONARTZEA, IKUSIZ GOZATU ELKARTEAREKIN HITZARMENA LUZATZEA.

Alkateak gogorarazten du, 2019ko martxoaren 5ean egindako osoko bilkuran, udalbatzak onartu zuela, baimentzea liburutegiaren erabilera pribatua "Ikusiz gozatu" izeneko kultur-elkarteari. Esandako elkarteak, irabazi asmorik gabeko elkarte soziokulturala da eta, bere xedeen artean dago, zinema emanaldi eta eztabaiden bidez, gizartean eztabaidagai diren hainbat gai buruz hausnartzea (esaterako, ingurumena, berdintasuna, giza eskubideak, eta abar).

Hartara, hitzarmen bat egin zen elkartearekin eta, horretan jasotzen dira, emandako baimenaren baldintzak. Besteen artean, bi urtetarako baimena eman zen eta, ondoren, beste bi urteko luzapenaren aukera jasotzen da. Horren harira, Alberto Onaindiak luzapena egiteko eskaera egin zion udalari, Ikusiz gozatu elkartearen izenean.

Besterik gabe, alkateak aurkezten du Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak Udalbatzari egiten dion proposamena:

Lehena.- Onartzea, Ikusiz gozatu kultur elkartearekin dagoen hitzarmenaren luzapena egitea. Horrenbestez, hitzarmenak beste bi urte gehiagoko indarraldia izango du, oraingoaren amaiera egunetik aurrera kontatzen hasita.

Bigarrena.- Gogoraraztea, batetik, hitzarmenaren baldintzak berdinak izango direla; eta, bestetik, hitzarmena ezingo dela berriz luzatu.

Hirugarrena.- Akordio hau baimenduei jakinaraztea.

Besterik gabe, alkateak bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien aldeko botoarekin, aho batez, Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordearen proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

4. ONARTZEA, BADAGOKIO, BESAIDAKO LUR SAILAREN LAGAPENA.

Alkateak hitza ematen dio, mendi eta ingurumen zinegotzia den Santiago Balantzategi Beitiari, gaiaren inguruabarrak zehaztu ditzan.

Santiago Balantzategi Beitiak adierazten du, aspalditik datorren gaia dela eta, badirudi, orain amaierara iritsiko dela. Kontua da, Euskal Mendi Federazioak erosi egin zituela, duela hogeita hamar urte inguru, Besaide mendiko hainbat lursail, hain zuzen ere, hildako mendizaleen oroigarriak (zaharra eta berria) aurkitzen diren inguruko lursailak. Hasieratik, federazioaren asmoa izan da, tokiaren izaera publikoa bermatzea eta gaur egun euskal mendizaleentzat duen esanahi eta berezitasunari iraunkortasuna ematea. Hartara, lur sailen doako lagapena egin nahi die bertan muga egiten duten udalerriei.

Salerosketa egin zen, bere garaian, zegokion jabearekin eta, baita ere, dokumentu pribatuan jasoa izan zen. Haatik, eskritura publikoa egiterako orduan, ezin izan zen aurrera jarraitu, jabeen legezko ordezkaritza arazo batengatik.

Oraingoan, hainbat izapideren ondoren, gaia bideratuko duen urratsa emateko prest dago. Notaritzan prestatu den eskritura publiko zirriborroarekin bat, izapide bakarrean egingo dira, lehenik, jabearen



jatorrizko lursailetik segregazioa; eta, bigarrenik, Aramaioko Udalari doako lagapena. Sortuko eta lagako den lursailaren ezaugarriak dira:

Azalera: 62.790 m²

Kokapena: Aramaio.

Katastro erreferentziak: 4 poligonoko 260 partzela eta 259 eta 261 partzeletako zatiak.

Mugakideak:

- Iparraldetik: Bizkaiko lurralde historikoaren muga.
- Hegoaldetik: jatorrizko lursaila.
- Ekialdetik: Gipuzkoako lurralde historikoaren muga.
- Mendebaldetik: jatorrizko lursaila; Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde historikoen mugak.

Nabarmentzekoa da, lursailetik igarotzen dela udal bide publiko bat, hain zuzen ere, Aramaioko Udal landa bideen inbentarioan BESA-01 izendatutakoa.

Bestalde, lagatzen den lursail horretan kokatua dago, Euskal Mendizale Federazioaren enkarguz, Yoshin Ogata eskultoreak egindako oroigarria. Federazio hori arduratuko da aipatutako oroigarriaren mantentze eta zainketa lanez.

Ondoren, alkateak aurkezten du Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak Udalbatzari egiten dion erabaki proposamena:

“**Lehena.-** Onartzea, Besaide mendiaren inguruan banandutako lursailaren doako lagapena eta lursailaren jabetza osoa. Aipatutako lursailaren ezaugarriak ondorengoak dira:

Azalera: 62.790 m²

Kokapena: Aramaio.

Katastro erreferentziak: 4 poligonoko 260 partzela eta 259 eta 261 partzeletako zatiak.

Mugakideak:

- Iparraldetik: Bizkaia eta Arabako lurralde historikoen mugak.
- Hegoaldetik: jatorrizko lursaila.
- Ekialdetik: Araba eta Gipuzkoako lurralde historikoaren muga.
- Mendebaldetik: jatorrizko lursaila; Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurralde historikoen mugak.

Bigarrena.- Gaitzea Lierni Altuna Ugarte, alkate andrea, prozedura hau izapidetzen jarraitzeko beharrezkoak diren egintzak egin ditzan, eta, bereziki, egoki diren dokumentuak sinatu eta bideratzeko.”

Besterik gabe, alkateak bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien aldeko botoarekin, aho batez, Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordearen proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

5. ADOSTASUNA AGERTZEA FORU GOBERNU KONTSEILUAREN ABENDUAREN 29KO 720/2020 AKORDIOAREKIN, ZEINAREN ARABERA ONARTZEN BAITA 2021EKO ABENDUAREN 31RA ARTE LUZATZEA ABENDUAREN 26KO 904/2016 AKORDIOA, GIZARTE ZERBITZUAK FORU ALDUNDIAK EMATEKO.

Alkateak hitza hartu eta adierazten du, Arabako Lurralde Batzordeak baiezkua eman diola Arabako Foru Aldundiaren proposamenari, hasierako 2016ko erabakiaren hirugarren luzapena formalizatzeari buruzkoa. Horren helburua zen 20.000 biztanle baino gutxiagoko Arabako udaletan gizarte-zerbitzuak 2016ko abenduaren 26a baino lehen eman ziren era berebean ematen jarraitzea, denboraldi iragankorrez.

20/2020 akordioaren arabera, abenduaren 29koa, Arabako Foru Aldundiak onartu du 2021eko abenduaren 31ra arte luzatzea aurreko 904/2016 akordioa, abenduaren 26koa. Eraginkortasuna baldintzatuko dute horren eskumena duen udal-organoak erabakia hartzeak eta horren ziurtagiria Arabako Foru Aldundira bidaltzea.

Ondoren, alkateak aurkezten du Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak Udalbatzari egiten dion erabaki proposamena:



“Gizarte Zerbitzuak arautzen dituen abenduaren 5eko 12/2008 Legeak 42. artikuluan xedatzen duenaren arabera, Udalaren eskumena da honako funtzio hauek betetzea:

(...)

3) 29. artikulua aurreikusten dituen oinarriko gizarte-zerbitzuak sortzea, antolatzea eta kudeatzea.

4) Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Zerbitzuen eta Prestazioen Katalogoan agertzen diren lehen arretako gizarte-zerbitzuak ematea, hain zuzen ere, 22. artikuluko 1. paragrafoak zehazten dituenak, tele-laguntzako zerbitzua izan ezik.

Era berean, Gizarte Zerbitzuen Legeak ezartzen du zein den gizarte-zerbitzuak jasotzeko eskubide subjektiboa. Hori, gainera, 2016ko abenduaren 26an hobetu zen.

Araudiak ezarritako eskakizunen ondorioz, Aramaioko Udaleko Udaltzarak haxe adierazi nahi du:

- a) Gizarte Zerbitzuen Legeak eta Lege horrek biltzen dituen beste arau batzuek bereizi egiten dituzte udal eskumena eta zerbitzuaren benetako prestazioa.
- b) Haxe da Gizarte Zerbitzuen Legearen helburu argi eta erabakigarria: Udalaren eskumena diren gizarte-zerbitzuak taldeka egin ahal izatea (Gizarte Zerbitzuen Legeko 28.2 artikulua eta 29.4 artikulua).
- c) Helburu hori, hain justu, inon baino agerikoagoa da Arabako Lurralde Historikoan; izan ere, lurralde horretan, 20.000 biztanle baino gutxiago bizi dira Gasteizen ez beste udalerrri guztietan, eta 20.000 biztanle baino gutxiago bizi dira Aramaioko udalerrian ere.
- d) Gizarte Zerbitzuen Legeko 36.5 artikuluan ere aipatzen da zerbitzuak modu konpartituan emateko aukera; izan ere, haxe ezartzen du artikuluko horrek: Gizarte Zerbitzuen Mapa aplikatzeko orduan, foru eta udal administrazioek ezarritako muga geografikoak hartuko dira kontuan. Arabako Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuen Mapa onartu zen 2016ko uztailan.
- e) Gaurdaino, Gobernu Kontseiluaren abenduaren 26ko 904/2016 akordioaren bitartez (organo berak luzatua abenduaren 21eko 765/2018 eta maiatzaren 26ko 222/2020 akordioez), Arabako Foru Aldundia ari da udal zerbitzuen zati handi bat ematen, nahiz eta, ezarritako aurreikuspenen arabera, zerbitzu horien hornikuntza Udalarri egokitu.
- f) Gizarte Zerbitzuen Legeak berariaz aitortzen du administrazioek batera lan egiteko eta koordinatzeko betekizuna; izan ere, hala dagokio gizarte-zerbitzuen sistema integratu bati, eta halakoa da diseinatu den sistema. g) Era berean, Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen Legeko 31.2 a) artikulua ezartzen duenaren arabera, Aldundiaren helburuetako bat da “Udalaren eskumena diren zerbitzuak lurralde osoan egoki eta osorik ematen direla ziurtatzea”.
- h) Aramaioko Udalak arestian adostu zuen ados agertuko zela Arabako Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluko abenduaren 26ko 904/2016 akordioarekin, zeinaren arabera, gizarte-zerbitzuak emango baitziren 2016ko abenduaren 26tik aurrera ere, behin-behinean, 24 hilabetez, ordura arte Aldundiak eta Arabako Lurralde Historikoko 20.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriek egin bezala. Akordioaren arabera, gainera, 24 hilabeteko epe horretan, Mapa osatzeko helburuarekin sortu zen Erakunde Arteko Mahaiak hainbat baliabide proposatuko zituen, hots, behar adina baliabide tekniko, ekonomiko eta juridiko, hartara, gizarte-zerbitzu guztiak eman zitezten, nor bere eskumenen barruan, eta hori guztia apurka ezarriko zen epe horretan. Baita ere, ados agertzen da organo beraren abenduaren 21eko 765/2018 akordioarekin, zeinak 2020ko ekainaren 26ra arte luzatu zuen aipatutako 904/2016 akordioa, abenduaren 26koa; eta organo beraren maiatzaren 26ko 222/2020 akordioa, aipatutako akordioa 2020ko abenduaren 31ra arte luzatu zuena.
- i) Prozesu hori oraindik ez da amaitu, salbu eta etxex etxeko laguntzaren alorrean.

Kontuan harturik Arabako Foru Aldundiak 720/2020 Akordioa, abenduaren 29koa, sinatu duela, eta horren bitartez Lurralde Historikoko Udalerriei proposatu diela 2021eko abenduaren 31ra arte luzatzea abenduaren 26ko 904/2016 Akordioa, eta kontuan harturik aurreko akordio horrek ezartzen zuela gizarte-zerbitzuak behin-behinean ematen jarraituko zela, ordura arte Aldundiak eta Arabako Lurralde Historikoko 20.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriek egin bezala, bere garaian ezarritako terminoetan.

Kontuan harturik premiazkotzat jotzen dela Udalaren eskumena diren zerbitzuak ematen jarraitzea eta elkarlanean jarraitzea, orobat, Gizarte Zerbitzuen Legeak, Sailaren Dekretuak eta Plan Estrategikoak



ezartzen dutena betetzeko, betiere, gaur egun indarrean den Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemarekin bat datorren ikuspegi tekniko, juridiko eta finantzario buruaski batetik.

Eta abiapuntu gisa harturik Akordioaren bigarren puntuak ezartzen duena, hots, akordioa indarrean sartzeko udalerriek onartu egin behar dutela hori, ados agertu behar dutela horrekin, eta agiri baten bitartez baieztatu behar diotela hori Arabako Foru Aldundiari.

Hori guztia kontuan harturik, Udalbatzak

ERABAKI DU

Lehena.- Aramaioko Udala ados dagoela Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 29ko 720/2020 Akordioarekin, zeinaren arabera onartzen baita 2021eko abenduaren 31ra arte luzatzea abenduaren 26ko 904/2016 Akordioa. Aurreko akordio horrek ezartzen zuen gizarte-zerbitzuak behin-behinean ematen jarraituko zela, ordura arte Aldundiak eta Arabako Lurralde Historikoko 20.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriek egin bezala, bere garaian ezarritako terminoetan.

Bigarrena.- Udalari ahalmena ematea, akordio honetan ezartzen direnak garatzeko eta kudeatzeko.

Hirugarrena.- Akordio honen berri ematea Arabako Foru Aldundiari, aipatutako testuko bigarren puntuan ezarritakoa betetzeko.”

Besterik gabe, alkateak bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien aldeko botoarekin, aho batez, Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordearen proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

6. GALDERAK ETA ESKAERAK.

Ez daude.

Azkenik, eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak bukatutzat eman du osoko bilkura hau, goiburuan adierazitako egunean eta orduan, eta nik Aramaioko bitarteko idazkari-kontuhartzaileak, hala ziurtatzen dut, alkatearen oniritziarekin.